bidegileak

Nikolas Alzola *Bitaño* (1922-1982)

Egilea:

ANTTONMARI ALDEKOA-OTALORA ZAMALLOA

Nikolas Mª Alzola Gerediaga *Bitaño* (1922-1982)

Noizkoa, nondarra

Nikolas Mª Alzola Gerediaga 1922. urtearen hondar-hondarrean jaio zen mundu honetara. Abenduaren 30ean. Bizkaiko Durangaldean, Izurtza deritzon herri txikitxoan. Herri apala. «Durangon bazkalduta Mañarian gora aldats handia dago San Antoniora» dio erromeri kopla zaharrak. Durango eta Mañaria artean duzu Izurtza herri txiki politta. Mugarra hatx harroxkoaren altzoan gain ordeka ikusgarri bat dugu.

Bitaño auzunea. Izurtzako auzo ikusgarria. Durango zaharraren balkoia. Haitzak hegoaldetik eta Durangerri ibarraren iparraldera Oiz mendiaren muga. Intxortak, Basalgok, Urkok… ekialdeko mugarri lez tente diraute. Han urrutixeago, beste aldera, Kantauri itsasoaren uhinak Urdaibairen sabela zipriztintzen ikus ditzakegu.

Bitañoetxebarriko alaba zuen Nikolasek ama. Eufemi Gerediaga Soloeta. Perutarra. Peru eta Marzel anaien, Peru eta Marzel hargin famatuen arreba genuen Eufemi.

Mugarraren altzoan Bitaño

Izurtzako udaletxe apal eta dotorea

Tontorra baserria, Nikolasen jaiotetxea, gereziondoa loran dela

Izurtzako Elizalde auzunean, herriaren erditik doan errepide ertzean, gain gunetxo baten «Tontorra» baserria duzue. Bertako semea genuen Satur Alzola Lizundia, Nikolasen aita.

Eta Tontorrean urte zaharrari agur esateko zorian, subilean intxaur saltsa plo-plo-plo-plo trebera gaineko lapikoan… bat-batean ezkaratz ondoko gelan… mutiko morrosko eder baten zilbor-hestea ama Eufemigandik eten da. «Gabon egunetik Urte Barrira ahuntzaren saltoa» esan daroe gure nagusiek. Gabon haurtxoa Tontorrean, «…urte barri, barri-barri, daukonak eztaukonari, nik eztaukot eta niri…». Tontorra baserrian 1922--1923 zubi laburtxo horretan mutiko zaparrotxo bat. Izena zein ipiniko, eta herriko eliz parrokiako patroiarena Nikolas Mª Alzola Gerediaga.

Ikasle eta plaza mutil

Nikolasek mutiko lagunekin batera, herriko eskolan emango ditu lehen urratsak. Hamalau bat urte arte herrian bertan edo beste zerbait ondu behar bazuen, adibidez Matematikak, Zaldibarren abade zegoen batekin eta Durangoko Maristetan urte betez ekin ondoren Bilbora joango da eta Komertzioa, —kontaduria ikasketak— burutuko du. *Perito Mercantil* titulua eskuratuko du.

Hala ere bere bizitzaren sena, beste bere hainbat generazio kiderena lez, bere sena, bere barrua arantza zorrotz batek zaurituko du. 1936ko anaien arteko guda zibilak. Kristautasunaren izenean heriotza eta gorrotoa.

Nikolas seintxoa bere ama Eufemi eta aita Saturren erdian

Hamahiru urte zituen Durango frankistek bonbardatu zutenean.

> Gerrako trajediak oso markatuta utzi ninduan ni. Durangoko bonbardeoa ikusi nuan nik. Hasi nintzan hara eskolara hiru egun lehenago edo hola, eta gogoratzen naiz aurpegia garbitzen ari nintzala, egun ederra zan, eta aireplanoen zaratea. Eguzkiak joten zuan, eta bonbak botaten zituztenean nik uste nuan papelak zirala, ze eguzkiak dizdiza egiten zuan, eta mementu hartan bertan bon, bentanako gortinak bon, eta ke baltza. Atera egin nintzen etxetik, eta elizako kanpaiak hasi ziran, eta gogoratzen naiz nola zegoen arinezko kura bat egindako miliziano bat, eta señora elegante oso baliente batek eta biok lagundu geniola. Gero ikusi egin behar, ez dakit inbestigadore zera banuan edo, ikusi egin nahi, eta frontoi aldean zegoen ume pilo bat bonbek apurtuta, gainetik trapuak eta horrela. Hamahiru urte edo izango nituan. Eta konturatu gabe urtero urtero azaltzen diet trajedia hori umeei eskolan. Ez zuten bonbardeatu Durango Gernikan erabili zuten teknikarekin, baina apurtuta utzi zuten. Gure etxean zuten koartela artilleru euskaldunek, Urkiolara eta joaten ziranak. Eta horrek gauzok markatuta uzten dute euskalduntasuna. Gerrako trajediak markatu eta konbentura joatea erabaki, bat baino gehiagok…

Euskara bidean ere, etxetik euskalduna izanik, nahiz eta karlisten familiakoa izan, esaunda, ipuin eta pasadizo gazi-gozoak jasoko ditu inguruan, berriz ere irazi ondoren prosa beroan eta bihozkadez beteriko olerkiz bere herriari itzultzeko.

> Ni Izurtzakoa naiz, baserrikoa. Bilbon estudiatu nuan, gogoratzen naiz hamazazpi urterekin nola ez nuan batere erraztasunik subjuntiboak eta erabilteko erderaz. Orain ere ez larregi. Familia tradizionala nuan, eta tradizionalista gainera. Baina Bilbon hartzen ninduan familia adiskide hartako gizona liberala zan, Pio Baroja eta bere anaiarekin estudiatutakoa. Orduan mentalitate bi ziran

nire inguruan, baserriko tradizionala eta kaleko liberala. Baina euskaltzalea zan, Arana Goiri ezagutu zuena, baina ez zuen harrapatu ez ideologian eta ez partiduan. Hura beti liberala izan zan.

Euskara kontuan ere oso gazterik etxean ere bai, liburuak egoten ziran eta, baina batez ere Diputazioko Liburutegian ordu asko sartu nituan. Euskal kulturako liburuak irakurtzen nituan.

Bere esanetik kontura gaitezke Komertzio ikasketez gain barruko arrak, jakintza minez, beste bide batzuk arakatzera bultzatzen zuela. Garai hartako giro estuan leihoak irekirik zituen Nikolasek. Diputazioko Liburutegia edo bere beste zaletasun bat garatu nahian, arratsaldez, Nika Madariaga eta Valentin Zubiaurrerengandik pintura klaseak jasoko ditu. Ez zen trenez atzera eta aurrera ibili ohi zen estudiante tunante horietakoa gure Nikolas, ez. Bitartekoei probetxu ona baino hobea atera zien.

Ikasketak amaitu baino lehen aurretik soldaduska egin beharra izan zuen eta hiru urtez! Izurtzarraren kasuan kikildu baino zaildu egin zuen egoera berberonek ere, aberastu bere izakeran eta lagunekin lagunago, betirako egin zituen han ere. 1943-46 gerra osteko tarte horretan, gosea eta errazionamendu-txartelen garaian, Nikolas karlista-liberal-bizkaittar gaztea bere buruaz bera izaten saiatuko zaigu.

Plaza mutila da. Hogeitaka urteak dauzka. Bere aita eta osaben antzera herriko gazteekin *Dantzari-dantzan* ekingo dio iraileko Andre Marietan, Izurtzako jai nagusietan. Dantzari aita Satur, dantzari osaba Peru… eta ezkaratzean koplak kantatzen dira lehengo dantzari zaharragoen izenak edo baserri izenak aipatuz. Nikolas orduantxe hasten da halako loreak biltzen.

Domeka ilunkeran, erromeriari amaiera emanez neska laguntzen doa. Durangoko kalekoren bat, *monjetan ikasia*ren bat edo denean solasaldi politak, baina Nikolasek ere

Mutil gaztea jakin minez Kamiruaga andereaz

gogoko zituen baserrietako berez erneak, masaila gorri eta begi beltz zoliak, irri eta zantzo bat batekodunak. Mañaria aldera egokitu ezkero neska laguntza gustua eta arriskua bateratzen ziren zeren herri honetako mutilek harrika hartzen zituzten kanpoko mutilak eta azunbre bat ardao ordaindu beharra izaten zuten bakerik izango bazen!

Irunen, La Salle Eneako nobiziaduan sartu zen 1948an

Erlijioso bokazioa

Edozelan ere bere bidea aurkitu ezinik edo ari zaigu. Ikasketak, artea, neska laguntzen… Foruan, frantziskotarren nobiziaduan sarrera egingo du bere geroa hortik ote doan edo… ez. Lehenago ere Burgosko Mirafloresko kartujara bisitaldiren bat egina du. Bere buruarentzat estua eta zuzena da. Halako batean, 1948ko maiatzean Irungo La Salleko nobiziaduko atean barrura sartu zen. Etxekoentzat ez zen izan aukera egokiena. Baina bera temati eta egoskor, urlia ere Hermanoa zela-eta…

Nikolas Alzolak, bere belaunaldiko apaiz--erlijioso gehienek bezala abadegintza, meza emailea izatea aukera zezakeen. Ez, ostera! Bere barrua, bere bihotzondoa ez zuen duin ikusten Kristoren misterioa eguneroko mezan, aldarean, bere eskuetan eta bere hitzez antzaldatzeko. Gazterik izan omen zuen argi eta Hermano Valentinen bokazioa ez zen, orduan usu zenez, hamaika urterekin komentuan, barnetegian loratu zenekoa, ez. Plaza--mutila da, estudiantea, Bilbon ikasten ari den herri txiki bateko baserritarren semea. Karrera egin dezakeena…! Ez digu bada abitua jantzi eta gainera Gotzain izatera iritsi zitekeen biderik urratu, ez. Apaizgintzan ez du bere burua ikusi «Jauna, ni ez naiz inor…» behin eta berriz errepikatuko du bere kautan.

Irungo San Martzialen irakasle

> Manterolaren aldizkariari esker euskaltzaletu nintzen, politikan ez nintzen sartu. Ni liburutegietako gizona naiz. La Sallek Beljikan baditu Bellas Artes eta Arkitektura eskolak, eta nire ideia hara joatea zen, baina Europa hankaz gora zegoen gerratearen ondoan, eta probintzialak hemen gelditzeko, eta zorionez gelditu nintzen, hiru egunetarako gelditu ere Irungo nobiziadoan, eta hogeita bost urte daramazkit.

Hara bada Izurtzako Tontorreko Nikolas bat--batean sasoiko gaztea euskaltzaleturik eta Lasalletarren abitua jantzita, okozpeko baberu txuri eta guzti. Ohikoa zenez, Elizaren Kontzilioak leihoak ireki zituen arte, fraideen ordena eta kongregazioetan abitua hartzerakoan munduarekiko loturei uko eginez izena ere aldatu egiten zen. Gure Nikolas Anaia Balentin Berriotxoa edo Hermano Valentin Berriochoa bilakatu zen. Oraindik

Ametsetan

ere bada makinatxo bat Bisasoa alde horretan Hermano Valentin gogoratzen duenik eta Nikolas Alzola aldiz arrotz zaionik.

Gerora gure Nikolasen apaltasuna eta jasa euskal letradunen artean goraipatua izanik ere, bere zenbait ikaslerentzat esku arina zuen. Berak ere aitortzen du lerro tartean, baina orduan halaxe zen.

> Lehenago eskua arin erabiltzen zan, ez eskolan bakarrik, baita familietan ere. Guk hortan badugu arriskua... Ikusten duzu haurrak lanik egiten ez duala, egun bat eta hurrengoa, eta gero esamina dator. Noski, katedratiko estiloan suspenso jarri eta kito, gurasoak ezer esaten ez badute zu lasai gelditzen zara, baina etorten badira zarataka? Orduan esan behar diozu, kuentea atara artean hemen geratuko haiz gero eh? Laster atara ere, laster.

Maisu betebeharrak garaiko estilo zorrotzez bete zituen. Irunen eta Bilbon langileen semeak zituzten ikasle eta gurasoek nekez zuten kultura baten jabe eta lanerako prestakuntza eskaini eta janzten ahalegintzen ziren, dira Lasalletarrak.

> La Sallek herriarentzako sortu zuan ordena, guk obrero semeekin egin dugu lana... Gu lan eginez bizi izan gara, ez gara mendikanteak izan. Gu, fraideen artean, los de buzo izan gara.

Bere-berea zuen nortasuna hedatzen zuen klaseetan ere. Estilo zorrotza aipatu dugu, baina bere nortasunez jantzia. Kantuak eta pasadizoak erabiltzen zituen ikasgelan. Bere kideak, bere kongregazioko Anaia kideak bekaizti ziren behin baino sarriagotan. Donostiako Liburutegietara edo halako eta haraindikoekin harremanak zituelako, aldizkarietan, liburuetan publikatzen zuelakoz eta noizbehinka ikasleei ere horien berri ematen zielakoz. Anaia Balendinek ostera bazekien paduretako lur arinetan ibil zitekeela eta bere Probintzial Nagusia bere urrats ororen jakinean zeukan.

Irungo San Martzialen irakasle, Hermano Valentin

Euskara-*Atalak*

Han-hemen argitaratzen zituen Irundik lasalletar honek bere iruzkintxoak. Bateko bere olerkiak, Etxahun Barkoxe-koaren bertsoak, ipuinak, bibliografi eranskinak… 50. hamarkadako euskaldungoan ezaguna egin zen eta Euskaltzaindiak berak ere 1957an Irunen egindako batzarrean euskaltzain urgazle izendatu zuen.

Gizakiok hogei urtera bitartean jantzi ohi gara barruz. Gaztaroan, nerabe-zaroan zer ikusi, zer entzun, zer ikasi… Horren ondorioz emango ditugu fruituak. Nikolas Bilbon *Euskal Erria* irakurriaz jantzi zen euskaltasunez eta euskara idazteko unean Mañariko, auzo-herriko Kirikiño hartuko du eredu eta gidari.

Marzel eta Peru osabak, ama Eufemiren nebak.
Hargin famatuak baina batez ere berba jario aberats eten bakoak.
Nikolasek hemendik edan zuen

Nik Bizkaia aldera jo nuan, Kirikiño irudi hartuta, ze Kirikiño izan zan gerra aurrean

niretzako, beldurrik gutxiena izan zuana herrira joteko, batez ere asko zekielako.

Eta irakurle arrunta ez eze arakatzaile aparta denez, gazterik jabetu da esku artean, hurbil--hurbilean duen altxorraz. Izurtzan bere Tontorrean ama Eufemiren belaun buruetan jesarrita entzundako ipuinak eta Bitañoko osaba Peru eta osaba Marzelenak. Ai ze berriketaldiak! «Agate Deunaren ermiñta ingurukoak», «Dolometa gainekoak», «Erdoitzako anaia defuntuarena», «Herriko dantzariak», «Kopla zaharrak»… Bitañoetxebarriko osaba Julianek, egun osoz goldaketan erabilitako behi suitzarrak erazten, hanka artean zeukan esne kantinera, kirrrrin-karrrran, trontza zorrozten balebil lez esne jaisten ziharduen bitartean, Peru eta Marzel osaba mutil zaharrak ezkaratzean «Erregelak» dantzan. Batak abestu eta besteak gorputzari jira! Gure Nikolas hantxe bertan. Osaba Marzel isiltzeke, tabakorria erreaz bere aitonaren karlistada aldiko hamaikagarren pasadizoa zintzelkada berriz kontatzen… «Atxurkuluko urregorria eta Bruno Maurizio Zabalak», «Montevideoren eraikitzaileak», «Saizabal barrenengo metal-ur iturrian atseden hartzen zuenekoa»…

Izurtzako dantzariak 1916an. Ezkerretik hasita zutik: aita Satur, osaba Peru,…

Nikolas Alzola Gerediaga *Bitaño*ren fruitu gozo batzuk

Kolkoan gorderik zituen Nikolasek umetatik zertzelada guztiok eta etxera inguratzen zen bakoitzean, Durangaldera, Izurtzara… iturri zaharretik edan ohi zuen beti berria den ura. Baina kolkoan, gogoan zuen hura argazki bildumen gisara argitaratzen zuen han--hemenka. *Egan*, *Olerti*, *El Bidasoa*, *Euzko Gogoa*, *Gerediaga*, *Zeruko Argia*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, *Vida Vasca*, eta…

Marrazkilaria zen Nikolas Tontorrekoa, Tontorra izenez sinatzen zituen bere koadroak. Idazle-marrazkigilea genuen Nikolas edo Bitaño edo Markue edo N. de Cortazar edo…bere idazkiak koadroak ditugu. Euskara apalean, euskara aberatsean, Kirikiñoren estiloan barreiatu zituen kolkoan, ezkutuan zeuzkanak.

Irungo Anaia Berriotxoa hil ondoren Aitor Anuncibayk hara zer dioen «Euskaraz Irunen barrena» idazlanean:

> Salleko fraile bizkaitarra Irunen egokitu zen 1950an. Handik aurrera irakaslea izan zen San Martzial ikastetxean. *El Bidasoa* astekarian nahiz kanpoko beste aldizkarietan, euskaraz eta erdaraz, ehundaka artikulu, bibliografia oharrak eta jakintza artikuluak idatzi zituen. Baina Nikolas Alzolak etnologia eta dialektologia ere gustukoak izan zituen. Zaletasun haren emaitzak, gure bailarako euskal esamolde, kontakizun, bertso eta usario zahar anitz, 1959-1961 urteen bitartean, *El Bidasoa*-n kaleratu zituen, *Literatura oral eusquérica de la comarca bidasotarra* izenburupean. Duela urte batzuk, *Luma* argitaletxe irundarrak *Euskaraz, Irunen barrena* liburuan bildu zituen Alzolak Bidasoaldeko euskalkiari buruzko egindako ikerketak. Egun, Irungo euskalkiaren ezin-besteko lekuko dugu liburu hau…

Irungo hiri handian Anaia Balendinen *Atalak* liburuak argia ikusi du Kuliska Sorta sailean eta Bitaño izenez. Euskara batuaren oinarriak, biraoak, aurpegi luzeak, nor baino nor… eta gure izurtzarra erdi bidean, bateko eta besteko enbatei begirada garbia eta berba eroangarriak, itxaropenezkoak eskainiaz.

> Inprimategirako prestaturik nuelarik egin zen Arantzazun Euskaltzaindiaren Biltzarrea, eta euskara batua lortzeko bidearen lehengo oinharriak ezarri ziren. Iritzia eskatu nion adiskide bati eta zabal jokatu zuen erantzunean. Aldaketa egunek harrapatu ninduten hain zuzen, bilaka bidearen haserak. Ezertxo ere berrikutu gabe eman nuen…

Zein liburu mardula! Zein liburu ederra! Zein liburu apala! Zein gozoa den Bitañoren fruitua! Beroa eta gozoa. Bihotza eta margoa. Apala eta handia. Ederra! Erlijioso batek egina da baina ez duzu katekesi, dotrina liburua.

Euskara batuaren bidean

Euskara batuaren urratsak ematen ari dira eta bizkaiera gozoan datoz *Atalak*. Lehen begiradan Kirikiñoren *Abarrak* lanaren aldagai bat dukegu. Baina ez! Bitaño, Nikolas ezaguturik bererik badauka. Berak jasorikoak eta bere inguru hurbil horretantxe jasorikoak gogotsu eta fereka finez eskaintzen dizkigu. Bere Atalekin batera hiru sarrera ditu liburu honek. Erkiaga, Akesolo eta San Martinenak. Zein baino zein zaluagoak. Sarrerok irakurri ondoren liburuan barrena abiatzeko irrika bizia izango du irakurleak. Gehiago oraindik, ondo asebeteko da. Ez du nobela existentzial bat irakurriko, baina bai irria eta patxada mantenduz egunoroko, 1967an galbidean zen hainbat istorio, pasadizo, benetakoak, irudikatuak… Bitañoren *Atalak* liburu honetan aurki ditzake.

Euskara batuaren ontzian sartuko da eta hor doa Nikolas kulunkan, lagun batzuen bekozkoa, lagun minena, abade eta fraide asko berauen artean. Hala ere, euskara batuaren alde egite horretan ez zuen harrokeriarik eta kukurrukurik joko.



Vitaño-etxebarri, bere amaren jaiotetxea Nikolasek berak margotua. Bitaño izengoitiaren jatorria

San Nikolas parrokia, Izurtzan, Tontorra artistaren ikuspegitik

Orain arte legez, egin beharrekoak egin eta han-hemen argitaratuko ditu bere lanak. Mensajero argitaldariaren eskutik datozkigu *Hirugarren atalak* 78an, *Ipuinak* 78an eta *Ipuinak II* 80an. Lehentxeago, 1971n *Bigarren atalak* argitara emana du Kuliska Sortan.

Euskara batua pil-pilean duzu gaztedi berriaren beharrizanetan eta hor Bitañok tentuz bezain irmo eman du urratsa.

> Egin kontu baturantza hasten garela. Gazteak hasten dira alde batetik, baina zaharrak erdi izkutatuak daude, astiro astiro badoaz. Utzi bakean zaharrak, ez sartu modu txarrean zaharrekin ...Drama erdikoontzat zan. Loidi eta hasi ginan, astiro, euskera batuarekin Irunen. Ni ez nintzan joan Baionara, baina hangoa larregi izan zan askorentzat. Hau historia egiten danean, oso epoka interesgarria azalduko da. Nik batua oso positiboa ikusten dut.

Ataltxo bat aldatzea nahi dut paper hauetara. Xumea bezain adierazgarria. Oso etxekoa, baina beretzat zirraragarria:

Izurtzako herritxoa Mugarrako haitz urkuluaren azpian, Tontorraren pintzelen arabera

Azkeneko eskutitza… «gure etxetik, semendiyen ogeta lauen…». Nere aita ona (G.B) zanaren azkeneko eskutitza, gelan daukat orman josita. Euskeraz egiña da, beste asko eustazan moduan. «gu ondo gabiz danok, eskerrak Jaungoikuari» Bai, ez ekian berak laster joan bear ebanik betiko, gixajuak…

Aitaren azkeneko eskutitza, baiña paperean bertan etorren illobatxoaren lenengokoa «Osaba, au cartiau eskribidu dau…» Aitaitaren azkenengoa, eta illoba txikitxoaren lenengokoa. Badoianaren agurra. Eta datorrenarena. Euskeraz biak. Urrengokoak be orrelan jarraitu dagiela gure etxean.

Garratz aroan Nikolasen jasa

Nor zen, zer zen Nikolas? Kristaua? Euskaltzalea? Politikaria? Gizajoa? Zer zen? Denak batera. Hau genuen Tontorreko Nikolas. Karlisten familiarteko zen aldetik hamaika ate eta mila bihotz ireki zitzaizkion han-hemen, Durangaldeko… hemen bazegoen non aukeratu gero! Lauzurika artzapezpikua, Anpuerotarrak Varela generalarekin ezkonduta —hauen aitonak 1886.go Euskal Jaiak eratu zituen Durangon Anton d'Abadierekin—, Esteban Bilbao Madrilgo Gorteetako presidentea, parroko hau eta udal idazkari hura…

Heziketa aldetik gorago ikusi dugu zelan eta non euskaltzaletu zitzaigun. Ideiak tolestu, leihoak ireki eta esperantzaren tonu orlegia bere bizitzaren abizari egin zuen. Gerra oste ilun hartan lagun minak egin zituen Durangerrian eta Bilbon eta Bidasoa aldean eta Donostian eta… eta inor ez zuen saldu, inor ez zuen mindu, beno bai, mutiko ikasleren bat edo beste belarrondoko bategatik «irakaslearen esku arina…».

Gure izurtzar honek bazuen halako lasaitasun lurrun bat. Bera ezagutu zuen orok, edo gehienok Lasalleko Anaia honen inguruan atsedena, arnasa, bizi-poza, jasoko zuen. Garai hartako, 1955-65-70 tarteko integrismoa, espainiarra, katolikoa, euskal kultura gerra aurreko joera puritanoa, *Eusko Gogoa*ren eragina, *Egan*, Juanito San Martin, Txillardegiren etena, —*Leturiaren egunkari ezkutua*—, Gabriel Arestiren poesia urbanoa eta lehengoarekin hausturarako nahia sotanadun herri honetan…

Izurtzako txoko ezagunak bere barruko kolorez margotuak

Bada hemen beste zenbait pasadizo artean hurrengo hau. Artista ere bagenuenez Nikolas, pintorea, Ayalde-rekin harreman estua zuen, baina baita ere Agustin Ibarrola marrazkilari--pintore gaztearekin. Hau ere Gabriel Aresti-rekin batera urbanoa genuen eta bere koadroak langileriaren aldeko, langile esplotatuaren izerdi eta nekea adierazteko motiboak ziren. PC-ko, komunista zen Ibarrola eta 1960ko hamarkadan PCko izatea marraren bestaldean egotea zen. Gobernuarentzat gaizkileak ziren, «bolcheviqueak», euskal kontzientziaren jujeentzat espainolistak ziren PCkook. Bada, Agustin Ibarrola bere ideiengatik, Partido Comunistako kide izategatik atxilo hartu zuten. Han joan ziren ikustera, espetxera animuak ematera Gabriel Aresti, Juanito San Martin eta gure Nikolas Alzola, *Tontorra*, hau bere lasalletar sotanaz jantzirik.

Gure egunotan goraipatua eta laudatua den Gabriel Aresti berak hamaika errebolta eragiten zituen bere luma zorrotzez. Euskal letren artean bazen geldi egon ezina. Euskara batuaren eztabaida, tartean erlijioa —euskaldun fededun—, baserrietan iraungo zuela, seminarioen hustura, garbizaletasuna, «nire aitaren etxea defendituko dut», «Ez dok amairu», felipeak, Derioko abadeen Gogor taldea, Arantzazun Euskara batuaren Biltzarra eta

Durangoko udaletxean “Baskongada”ko sarrera hitzaldian

euskal letren jagoleen arteko etena. Eragile sutsuenetariko bat Gabriel «Euskeraren asturua ezta gauza segurua».

Gizon eztabaida zale eta haserrekor horren baitan ere bihotz bat bazen ordea, eta alditan bakartia, agian. Han zegoen baina gure Bitaño bere laguntza emanez eta bide batez euskal alorrean elkar aberastuz. Aresti gerora batzuek eta besteek asko goraipatu izan dute baina hark euskararen suzia pizturik zuenean askorentzat eztena zen bere hitza eta min eman ohi zuen eta garai garratz hartan gure Nikolasek:

Arestik fama zuan beti zaratakerian ibilten zala, ezta? Ba nirekin sekulan ez. Arantzazuko Kongresuan ezagutu nuan, oraindik ez zekian euskeraz ondo, zer edo zer bai, eta «datorren urterako jakingo dut». Kasu interesgarria zan orduan, euskaldun berria, han ezagutu ginan... Literaturaz asko hitz egiten genuen... Ilusiño handia zeukan bizitzeko... Gogoratzen naiz behin nola esan zuan: «lehen pentsatzen nituan gauza asko ez ditut berdin pentsatzen». Ez dakit zergatik esango zuan, baina nik astiro astiro zabaltasun bat ikusi nion. Pena haundia hartu nuen. Niretzat gizon haundia izan zan.

Durangoko udaletxean, Francoren mantupean, 1971n, VI. Euskal Liburu eta Disko azokaren inaugurazio ekitaldia. Jose Inazio Alberdi, Nikolas, Francisco Amorrortu-alkatea eta Balendin Lasuen

Zurrunbiloen munduan

Izurtzar Tontorreko Nikolas zer-nolakoa izan zen hara zein ederki eta egoki adierazirik utzi digun Joan San Martinek:

> Bai, bera fisikoki mugitu zen gizartearen inguruan oso ezaguna zen; ezaguna irakaskuntzan eta ezaguna euskal kulturan, baina ezagunagoa ontasunaren eredu norbait izendatu behar zenean. Nik, pertsona onak asko ezagutu ditut, baina ontasunean eta zintzotasunean inor ere ez Nikolas hainekorik. Izan ere, Nikolas, katolikoek santutasunez eman izan duten irudiaren erakoa zen bere izaeraz. Pertsona ona eta beste edonoren parte ona soilik ikusten zekiena eta beti nornahiri laguntzeko gertu. Hark bezala ikasiko bagenu lagun hurkoa maitatzen, gure gizarteak zori hobea izango luke. Honelakoa zenez, berarekin harremana izan duten guziak maite zuten Nikolas.

Erlijiosoa, kristaua zen Tontorreko Nikolas. Anaia Balendin Berriotxoa Lasallatarren artean eta begira bere buruaz zer zioen, abiadura eta zurrunbiloen mundu bizkor honetan. Honela dio «Astiroa» poesian:

ESTRACTO
DEL REGISTRO DE LA REAL SOCIEDAD
BASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS

Real Sociedad Baskongada de Amigos del País-en bazkide agiria

astiroa izan naiz beti.
besteak baino atzerago ni
beti
gauza guztietan

atzerago
eta atzean
beti beti azkeneko.

horrek erakutsi dit
nere buruz
pentsatu
eta
gogoratzen
nere buruz iritziak
hartzen

eta
bide hori
erabakitzea
ez da beti
barkatzen.

diru bideetara
lagunik gehienak.
beste bide
batera ni.

beste bide
batetarik
nere
pauso
astiroak.

askatasunez jokatu dut
iñoren iritziei larregi
begiratu gabe.

eta hor dago bizitza.
bizitza eskekoa.
bizitza biluzia.
helburu apal baterako bizitza pobre eta
luzea. gaur gutxik
aukeratzen duen bizitza bidea.
diruak baino gehiago
bete nauen bizitza.
askatasun handi bat eman
didan kate barruko bizitza.

«Astiroa» eta besteak baino atzerago baina «Itxaropenezko bide barrira» doa Nikolas zurrunbiloen mundu bizkorrean:

Miñezko kantua amodiozko kantuan
biurtzeko,
ezteukat bildurrik
neure burua ukatu
ta bertanbera itxiteko atzoko bideari.

Badakit.
Bai, badakit
Gogorra izango dana.
Gogorra?... eta nork daki?...
Aldabenaren
laguntasunagaz
atx-tontorrak be zelai bihurtzen dira
sarritan.

Eskeko egingo dodaz neure eskuak
buru-biotzen morroi
Alguztidunaren aurrean

eta
Bere kerizpea
eskatuz,
Beragan itxarongo dot
eta aurrera jarraitu beti,
bertanbera betiko itxitako bideruntz
atzerantza
barriro begiratu barik…

Bizitza barriko bide latzetan
ankapietatik odola dariola joango naz,
aurrerantza,
aurrerantza beti,
atzeruntza begiratu barik,
konturatu barik,
Egillearen Egian
sinistuaz,
txoriak egan egiten dauban moduan.

eta
txori askatuaren
kantuan,
kantauko dot:
«maitasunez
maitatuko dodaz
bizitzakin batera emon zeunstazan
Aginduak»

Eta gero,
iñoiz be illuntzen ez dan eguneko
egunsentian,
ixiltasunezko paraje zelaira
joaten naizenian,
errukarri
ta parkamenez
artu nagizu
maitasunez zugan sinistu ta itxaron egin
dodalako.

VI. euskal azokako inaugurazio hitzaldia ematen Nikolas

Gerediaga elkartea

Nikolas Alzola Gerediaga, Durangerrian jaio, hazi eta hezia zen. Bere barne-muinean, kolkoan bizirik, isil-poltsa gorderik eduki ohi den eran, bere bihotzean bizi-bizirik zeraman berea zuen, bera zen inguru oso hau. Izurtzarra sortzez eta Durangaldeko nahinongo herri, baserri eta batez ere hemengo pertsonak, karlista, ateo, dantzari, seminarista, idazle, gorri edo abade, eskeko, laborari edo torneru…. Nikolasi hemengoekin, bere etxekoekin bihotza samurtzen zitzaion eta hurreratu eta familia hurbileko izaten ahalegintzen zen.

Halaxe, 1965ean Gerediaga Elkartea sortuz geroztik, odolezko eta sentimenduzko harreman estua eta beroa jaio zen elkartearekiko. Gerediagako buruzagitzakoez gainera bazkide guztiak ezagutzen ahaleginduko zitzaizun. Elkarteko batzordekideei laguntza, aholku, buletinean kolaboratzaile, Euskal Liburu eta Diskoen Azoka guztietan bisitari ez eze partaide zen. IX. Euskal Liburu eta Disko Azokan Kirikiño saria eratu zen eta Amatiño bizkorra izan zen sari horren irabazlea.

Hara *Zeruko Argia*ko kazetariaren galdera eta Nikolasen erantzuna:

– Anai Berriotxoa, garrantzi haundia duela uste ahal duzu kazetaritzak?

– Euskal Herriko kultur eginkizunen artean lehen mailan jartzen dut kazetaritza gaurregun. Telebistarik ez dugun bitartean hauexek: kazetaritza, irratia, alfabetatzea, ikastolak, sermoigintza.

1981eko Euskal Liburu eta Diskoen Azokaren egitarauan bera ere partaide zen: «Nire herriko esamoldeak eta Pantxillonen bertsoak» gaia jorratzeko. Osasunez ahuldurik ordea, ez zuen agertzerik izan baina bere lana irakurtzeko eta kantatzeko elkartekide bati agindu zion.

Andra Mariako elizpeko azokan liburu eta adiskide artean

1978ko azokan bere liburuak sinatzen Tontorreko Altzola. Bere sinaduretan «Mikolaitz» erabiltzen du

Azken arnasa

Handik lasterrera, sei bat hilabetera, 1982ko ekainaren 2an bere Bidasoa ertzean, San Martzialen altzoan, lasalletarren erretiroan azken hatsa eman eta Aita Santi eta Aita Lino karmeldarrak, Aita Julian betharrandarra, Aita Igiñiz kaputxinoa eta gaur gotzaina dugun Karmelo Etxenagusia meza-buru zirelarik azken agurra eskaini ondoren, lurrarekin bat egin zuen gure izurtzar Tontorreko Nikolas Marik, kristau on eta euskararen alorrean ideologiaz baino haratago izan behar dela, izan behar dugula irakatsi zigun euskaltzale jatorrak.

XVII. Euskal Liburu eta Disko Azokaren lehen hitzaldia bere oroimenez eman zen eta Gerediaga Elkartearen Liburutegiari bere izena jarri zitzaion: «Nikolas Alzola Gerediaga *Bitaño* Liburutegia».

La Salletarren erretiro honetan jantzi zuen abitua eta berton eman zuen azken hatsa

Epitafio

Gerediaga Elkarteko ohorezko Lehendakariari eskainitako koplak dira ondorengo hauek. Gerediagatar guztiontzat, bere kauten zizelkaturikoak. Atharratzeko Gazteluko «Ozaze Jaurgainian bi zitroin doratu» doinuan Markuek eskainiak dira Balendin Lasuen adiskideari, «Oiztik Anbotora» izenez. Bere azken-burukoa? Bere sustraiekiko testamentua?

Oiztik Anbotora
Durangoaldia
Euskal bazter onetan
Nere sorterria
Lur zabalen gainian
Haritza Geredian
Maiteko zaitut beti
Nere bihotzian

Oiztik Anbotora
Durangoaldia
Hemen sustraitu nintzan
Nere gaztedian
Zuhaitzaren Legian
Jarrai aurrerantzian
Euskaldun izango naiz
Bizitza guztian.

Oiztik Anbotora
Durangoaldia
Munduzabalen pare
Zu zara txikia
Bihotzaren legian
Zu zara lehenian
Mundu guzti'n aurretik
Nere bihotzian
Oiztik Anbotora
Durangoaldia
Sorterriaren deia
Nere bihotzian
Gurutzea Erdoi(tz)an
Etxeko ilobian
Beti maiteko zaitut
Bizitza guztian.

Oiztik Anbotora
Durangoaldia
Lurralde hontan dago
Nere arimia
Erortzen naizenian
Lurra hartzen dodanian
Maitatzen jarraiko zaittut
Betiko bizian.

Bere erlijioso anaia kideekin batera oroitarrian, Irunen

Izurtzako Erdoitzako Andra Maria eta hilerria Bitañora bidean

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiten jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Alzola-Gerediaga familiari
- Irastortza-Alzola familiari
- Gerediaga Elkarteari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2007ko iraila
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
	Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
	Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
	Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A.
	Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	978-84-457-2594-8 (Lan osoarena)
	978-84-457-2598-6
L.G.:	BI - 2585-07

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco